# Iragarkiak

## Beste Iragarki Ofizial Batzuk

### INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

**3183**

IRAGARKIA, honen bidez, eraikuntza eta eraispen hondakinak sortzea eta kudeatzea arautzen duen dekretu-proiektua jendaurrean jartzen da.

Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legea garatzeko onartu zen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuaren helburua eraikuntza eta eraispen hondakinak sortzearen eta kudeatzearen erregimen juridikoa ezartzea da. Errege Dekretuaren xedea aipatutako hondakinen prebentzioa, berrerabilpena, birziklapena eta beste balorizazio modu batzuk sustatzea da, beti ere ezabatze prozesuetara doazen hondakinek tratamendu egokia izan dezatela bermatuz eta horrela eraikuntza jardueraren garapen jasangarriari lagunduz.

Otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan adierazten denez, gai horri buruzko eremu batzuk autonomia erkidegoak onartu beharreko berariazko legeriaren bitartez arautu behar dira.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak honako dekretu-proiektu hau landu du: eraikuntza eta eraispen hondakinak sortzea eta kudeatzea arautzen dituen dekretu-proiektua.

Aipatutako dekretu-proiektua Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen arabera bideratu behar da.

8/2003 Lege horren 8.1 artikuluaren arabera, herritarren eskubideei eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Halaber, xedapenen izaeragatik komeni bada, jendaurrean jarri beharko dira.

Horretarako, aurreproiektua jendaurrean jartzen da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluarekin bat; izapide horretarako, nahikoa da hilabeteko epea, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Adierazitako aurreproiektuaren testua Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila-

# Anuncios

## Otros Anuncios Oficiales

### DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

**3183**

ANUNCIO por el que se somete a información pública el Proyecto de Decreto por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición.

El Real Decreto 105/2008, de 1 de febrero, aprobado en desarrollo de la Ley 10/1998, de 21 de abril de Residuos, tiene por objeto establecer el régimen jurídico de la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición, con el fin de fomentar, por este orden, su prevención, reutilización, reciclado y otras formas de valorización, asegurando que los destinados a operaciones de eliminación, reciban un tratamiento adecuado, y de este modo contribuir a un desarrollo sostenible de la actividad de construcción.

El Real Decreto 105/2008, de 1 de febrero, establece que determinados aspectos de la materia deben ser regulados por la legislación específica que se apruebe por las Comunidades Autónomas.

En este marco, el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial Agricultura y Pesca ha elaborado un Proyecto de Decreto por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición.

El citado proyecto que ha de tramitarse conforme determina la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General.

De acuerdo con el artículo 8.1 de la citada Ley 8/2003, las disposiciones de carácter general que afecten a los derechos e intereses legítimos de los ciudadanos serán objeto de trámite de audiencia y, cuando la naturaleza de las disposiciones lo aconseje, se someterán a información pública.

A tal efecto, se somete el anteproyecto a información pública, de acuerdo con el artículo 8 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General, considerándose para ello suficiente el plazo de un mes a partir del día siguiente al de la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco.

El texto del anteproyecto se encontrará a disposición de los ciudadanos y de las ciudadanas en la

ren web orrian izango da, herritarrek eskura dezaten (www.ingurumena.ejgv.euskadi.net).

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 30a.

Ingurumenaren Plangintzaren zuzendaria,
FRANCISCO OLARREAGA TELLECHEA.

página web del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca (www.ingurumena.ejgv.euskadi.net).

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de mayo de 2011.

El Director de Planificación Ambiental,
FRANCISCO OLARREAGA TELLECHEA.